

Mario Onaindia: «Ardanzak alderantziz ulertu du postnazionalismoa»

Ardanzak «gizartearen zatiketa» bultzatzea leporatu zion PSE-EEri

Ardanzak «alderantziz ulertu du» postnazionalismoaren diskurtsoa, Mario Onaindia PSE-EEko buruzagiaren ustez. Postnazionalismoarekin «gizartearen zatiketa» bultzatzea egotzi zien Ardanzak sozialistei eta hauteskundeak irabazten ez badituzte oposizioan izango direla ziurtatu zuen.

BILBO

«El Correo Español» kazetak herenegun argitaratutako Ardanzaren deklarazio hauek PSE-EEko buruzagiaren erantzuna eragin dute. Mario Onaindia sozialisten idazkariordeak atzo «Vasco Press» agentziari adierazi zionez, EAeko lehendakariak «alderantziz ulertu du postnazionalismoa».

Onaindiaren ustez, postnazionalismoa «Estatutuarekin, gauzatzeko geratzen diren transfereentziekin eta euskalduntzearekin euskal gizartearen ados dagoela azpimarratzea da. Gure ustez, Estatutua azken ondorioetaraino bete behar dela, bai transferentzien aldetik bai herriaren kontzeptuaren aldetik, eta Estatutua dio denok euskaldunak garaela baina EAJK zatiketaren beharra du hegemoniari eusteko».

Aldiz, euskal herritarren arteko zatiketa azpimarratzeak, Ardanzak egin duen bezala, «ez du eraginkortasun politikorik», adierazi zuen Onaindiak. Bere

Hauteslea engainatzeari ekin dio Ardanzak» Oliverik dioenez

DONOSTIA

PSOErekin osatutako gobernu koalizioaren emaitza eskasak ikusita, Jose Antonio Ardanza lehendakariak «gainontzeko alderdi politikoei erasotzeko beste erremediorik ez du», Inaxio Oliveri Eusko Alkartasunako idazkari nagusiaren esanetan. Bere iritziz, «duela lau urteko aurrekanpainan antzetzutako obra bera antzetzten ari da Ardanza: PSOEren aurkako erasoak, nahiz eta EAEn beraiekin gobernatu eta hauteskunde autonomikoen ondoren berriz gobernatzeko prest egon, eta EA desestabilizatze saioak».

EAJK PSOErekin duen jarrerara «zinikotzat» jo zuen Oliverik atzo prentsa ohar batean, «bederatzi urteko lankidetzaren ondoren eta Madril politikoki eta sozialki gainbeheran dagoen



Jose Antonio Ardanza igandean aurkeztu zuten ofizialki lehendakariagai.

EFE

irritiz, herritarren gehiengoak onartzen du kohesio tresna nagusia Estatutua dela, «eta Pakito eta Atutxa existitzen direnez geroztik, ez du zentzurik batasun nazionalistaz hitz egiteak. Hemen zatiketa posible bakarra demokratek eta demokratek ez diren arteko da».

Hauteskundeak galduz gero, PSE-EE oposizioa joateko aukeraz, ez litzatekeela ezer gertatuko dio Onaindiak. Hala ere, «Ardanzak gogoeta egin beharko luke ea zergatik duela lau urte Gobernu nazionalista bat sortzeko aukera egon zen eta-gaur ez dagoen», gaineratu zuen. PSE-

EEri gustatuko litzaiokeela «alderdi nazionalista batekin gobernatzea» esan zuen Onaindiak.

PSE-EEk hurrengo igandean izendatuko du Ramon Jauregi lehendakariarako hautagai. Mario Onaindia izango da Gipuzkoako zerrendaburu eta Buesa Arabakoa.

ARDANZAK KARGUA UTZI NAHI

Bitartean, EAJK igandean auzatu zuten ofizialki Jose Antonio Ardanzaren hautagaia. Gasteizen egindako ekitaldian, berriz hauteskundeetara aurkezteko asmorik ez zuela esanez Ardanzak legegintzaldiaren hasie-

ran bidali zion gutunaren berri eman zuen Xabier Arzalluzek. Gutun hartan arrazoi familiarak eta lehendakari bat agintean bi legegintzaldi baino gehiago ez egoteko beharra argudiatu zituen Ardanzak kargua uzteko. Aldiz, berriz aurkezteko Ardanzaren «disziplina ekintza» bat izan da, Arzalluzen esanetan.

Bere hitzaldian, boto nazionalista EAJren inguruan biltzeko helburua azaldu zuen Ardanzak. «Nazionalismotik herri bat eratzeko prest dagoen boto nazionalista hori gure inguruan biltzeko helburua izan behar dugu», adierazi zuen. Ildo horretan, EAren botoak erakartzeko «konbentzimenduaren eta pertsasioaren bidea» segituko dutela adierazi zuen.



Inaxio Oliveri.

GILLENEA

rekin kontrako aukerak indartzeko plataforma instituzionalak emanez».

Oliveriren iritziz, Ardanzak legegintzaldiaren balantzea, emaitzak aurkeztu behar ditu, alegia, «autogobernuaren garapenean aurrerapenik eza, eraipean industrialak, langabeziaren hazkundera eta bizitza mailaren okerragotzea».

Ordoñez: «EAJk eta PSE-EEk nabarmen agertzeko darabilte iraina»

BILBO

Gregorio Ordoñezek aburuz EAJ eta PSE-EEko burukideek egunotan izandako enfrentamenduak hauteskunde hurbiltasunean izango luke oinarria eta ez beste ezertan. «Gobernuko bazkideak diren EAJ eta PSE-EEk, euskal gizarteari aurkeztu beharreko balantzerik ezean, gatazka eta elkarren arteko deskalifikazioa erabiltzen dute nabarmen agertzeko» adierazi zuen PPko eledunak. Gregorio Ordoñezek ustez gobernu alderdiek «amaitzean dagoen legegintzaldi honetan egin dutena aztertzeke gauza ez direnean, argi dago ez dutela beste modurik beraiez hitz egin dezaten elkar joka ibiltzea baino».

Ildo berean, burukide eskuindarrak nabarmen utzi zuen EAJ eta PSE-EEren arteko enfrentamendua ez dela gauza berria hauteskunde garaian. «Atentzioa lortzen dute beraien hauteskunde liskarregatik ez beraien ahalmengatik, zalantzagarririk edozelan ere, euskaldunek dituzten arazoak konpontzeko». Zentzu horretan, Ordoñezek ustez, ezin daiteke esan gobernuko bazkideek bata bestearen alternatiba direnik.

Gregorio Ordoñezek PP alderdia hauteskunde markotik at utzi nahia leporatu zien bi alderdiei. Halere, estrategia hau beraien aurka itzuliko dela iragarri zuen zinegotzi donostiarrak. Gregorio Ordoñezek aburuz PPk ezusteko galanta emango die EAJ eta PSE-EE alderdiei udagoieneko hauteskundeetan.



U.N.E.D.

Bergarako Ikastetxe Elkartua
IRAKASLE LAN-POSTUAK BETETZEKO
DEIALDIA

Ikasgaiak:

Ikaskuntzaren psikologia
Psikodiagnostikoa
Psikologia Diferentziala
Psikologia Patologikoa
Irudikapen eta Marrazketa Teknikak
Algebra
Logika Matematikoa
Programazioa I
Programazioa II
Konputagailuen Egitura eta Teknologia I
Konputagailuen Egitura eta Teknologia II
Analisi Matematikoa
Matematika Diskretua
Geografia (Sarrera Ikastaroa)
Diagnostiko Pedagogikoa eta Orientazio Teknikak
Pedagogia Zuzentzailea
Euskal Hizkuntza eta Literatura III

Eskaren onarpena: uztailearen 8an amaituko da.
Eskatzaileak, behar diren inprimakiak, Ikastetxe
Idazkaritzan jaso behar ditu:
UNED, San Martin enp. z/g, 20570 Bergara.
Tfnok: 76 13 42/76 13 43